



FUNTSEZKO ELKARTEAK

Proiektu honetan izango ditugun hornitzaileak herriko tabernak, supermerkatuak, kafetegiak eta laguntza eskaintzeko prest dauden janari saltokiak izango dira. Hauek garrantzia handikoak dira, jendeari salduko diogun janaria, sobratu zaiena izango baita; beraz, esan dezakegu gure baliabideak hauengandik eskuratuko ditugula. Leku hauen eskuetan geratuko da prezioak zenbat jaitsiko diren, beraiek ezarriko baitute produktu bakoitzaren prezioa; gure eskakizuna gutxienez %30eko deskontua izatea da. Gainera, bezeroak bertara azalduko zaizkie elikagaiak eskuratzera, bere enpresek bezero berriak sorteko aukera izanez.



FUNTSEZKO ELKARTEAK

Bestalde guk ere parte hartuko dugu. Gure ardura lehen aipatutako komertzioetan zer eskaintzen den jendeari iristaraztea izango da. Horretarako izan da sortua gure aplikazioa.

Horretaz gain, nahi duenak iragarkiak ipintzeko aukera izango du diru kantitate txiki baten trukean. Ekintza txiki hau jendearen borondatearen erakusle izango da, lortutako dirua behar dutenei deskontu kupoiak oparitzeko erabiliko baita. Beraz, gure aplikazioan dirua jartzen dutenek euren enpresen itxura hobetuko dute eta bezero gehiago erakarriko dituzte. Horrela, bere negozio eredia optimizatuko dute.